

## BAIMENAK 22 -VPC- Bidaiarien garraio pribatuaren baimen berria

### Fitxa interneten bistaratu

### INFORMAZIO OROKORRA

#### Helburua

Enpresak behar duen baimena da, 9 plaza baino gehiagoko ibilgailuetan (autobusa), berezkoa duen enpresa-jardueraren osagarri den bidaiari-garraioa egiteko

#### Nork tramitatzen du

- MUGIKORTASUNeko ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DPTUA.
- Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia
- Mugikortasun eta Garraio Zerbitzua

#### Harremana

##### Helbidea:

Julio Caro Baroja plaza, beheko solairua - atzealdea, 20018 Donostia

##### Ordutegia:

8:30etik 13:30era astelehenetik ostiralera

##### Helbide elektronikoa:

[garraioabaimenak@gipuzkoa.eus](mailto:garraioabaimenak@gipuzkoa.eus)

##### Harremanetarako telefonoa:

943 112991

#### Nori zuzenduta

Enpresak eta autonomoak.

#### Baldintzak

- 1.- Enpresak garraioa ez den jarduera batean jardun behar du.
- 2.- Bidaiariak garraiatzeko beharra justifikatu behar du, eta erabiltzaileak enpresaren zentroetako langileak, hornitzaileak edo haiengana jotzen duten bezeroak izan behar dira.
- 6.- Zerga betebeharrak beteta izatea.
- 7.- Lanaren eta gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak betetzea.
- 8.- Posta elektronikoa dituela frogatzea.
- 9.- Ordaindu gabeko zehapenik ez izatea.
- 10.- Aholkularitza edo gestoria baten bitartez jardunez gero: gestoriak 001k ordezkari erroldan alta emanda egon behar du.

## HASIERA ETA ESKAERA

#### Aurkeztu beharreko agiriak

- 1.- Eskaera, behar bezala beteta. [GBE](#)
- 2.- Tasaren ordainketa (23,79€): ES65 2095 0611 091061117395 banku kontura egindako transferentziaren ordainagiria.
- 3.- Interesdunaren baimena, agiri jakin batzuk egiaztatzeko Administrazioak ofizioz erregistro publiko zehatz batzuetara sartzea ahalbidetzen duena. [ERREGISTRO PUBLIKOAK](#)
- 4.- Memoria, enpresaren zentroetara ohikotasunez joaten diren enpresako langile propioen eta erabiltzaileen kopuruari buruzkoa.
- 5.- Zirkulazio baimena. Ibilgailuaren xedeak edo ematen duen zerbitzuak Partikularra zehaztu gabea izan behar du, salbu eta Ibilgailuen Erregelamendu Orokorraren II. Eranskinean jasota dauden beste zerbitzuetako bat betetzen badu.
- 6.- Industriaren fitxa teknikoa.
- 7.- Gidariak: D1, D1+E, D eta D+E motetako indarreko gidabaimenak. Ibilgailuen gidari zerrenda. Langileak badira: ITA. Bazkideak badira: bazkide-liburua eta lan-bizitza.

#### PERTSONA FISIKOA IZANEZ GERO, AGIRI HORIETAZ GAIN:

- 1.- Baimenaren titularraren identifikazio-dokumentua (NAN, AIZ, iraupen luzeko edo aldi baterako bizileku-baimena, eta lan-baimena).
- 2.- Posta elektronikoa edukitzearen zinpeko aitortpena. [EMAIL ZINPEKO AITORPENA](#)

#### PERTSONA JURIDIKOA IZANEZ GERO, AGIRI HORIETAZ GAIN:

- 1.- IFK.
- 2.- Eraketa-eskriturak, behar bezala erregistratuak; eta, enpresa eratu zenetik hilabete bat baino gehiago igaro bada, dagokion erregistroan eginiko hitzez hitzeko ziurtagiria.

Eskriturretan agertzen den enpresaren helburu sozialak bat etorri behar du ekonomia-jardueren gaineko zergan agertzen denarekin.

- 3.- Posta elektronikoa edukitzearen zinpeko aitortpena, ordezkariak sinatua. [EMAIL ZINPEKO AITORPENA](#)

## Eskaera moduak

» Internet

## Internet bidezko eskaera

Eskaera eta dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoaren bidez bidali behar da. <https://egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/CORP/WATTramiteakWEB/inicio.do>

## Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

## EBAZPENA

---

### Ebazteko gehienezko epea

Legezko epea: bost hilabete.

### Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

### Honen bidez jakinarazten da

» Jakinarazpen elektronikoa

## ARAUDIA

---

- Uztailaren 30eko 16/1987 Legea, Lurreko Garraioa Antolatzekoa, zeina aldatu egin baitzen uztailaren 4ko 9/2013 Legearen bidez. [Legea, lehorreko garraioak antolatzeari buruzkoa](#),
- Irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretua, Lurreko Garraioa Antolatzeko Legearen Erregelamendua onesten duena, zeina aldatua izan baitzen otsailaren 15eko 70/2019 Errege Dekretuaren bitartez. [LGAE](#)